

ARKITEKTURA MODERNOA

Arkitektura modernoa, historiagile batzuen arabera, ilustrazioan datza (giza arrazoimenaren nagusitasuna eta aurrerapena baieztatzea izango lirateke eragile).

Beste batzuentzat, berriz, teknologian eta ingeniarietan izan diren garapenak eta material berriak dira bultzatzaile.

Beste batzuk gustu estetikoaren aldaketa (garaiko eklektizismoari eta Art Nouveauri aurre eginez) azpimarratzen dute jatorri bezala.

Dena dela, XX. mendeko bigarren hamarkadan Le Corbusier Frantziar eta Bauhaus mugimendua Alemanian ezarritak zeuden. Gero Frank Lloyd Wrightek batu zuen bere inguruan Estatu Batuetako mugimendua. Bereizgarriak:

- Estilo historikoak arkitekturaren inspirazio eta arau gisa, errefusatu
- Artisan teknologia industrialarekin batu
- Materialak eta zereginak emaitza erabakitzen dutela baieztatatu,
- Funtzionaltasuna, formen sinplifikazioa, beharrezko ez diren detaileen ezabaketa: beira fatxadarako eta hormigoia eta altzairua esturturentzat.

Baina laster aurkarien eskutik gizatasunaren galera zuelako salaketa etorri zen, eta horri dagokion desengainu orokorra. Ondorioa: **Arkitektura postmodernoa.**

Arkitektura postmodernoak espazioari ematen dio lehentasuna beste arte guztietatik bereizi nahian, fatxadak apaintzetik espazioak sortzera dator, eraikina bere testuinguru naturalean integratzen du, eta beti espazio zabalak eta kanpora zuzendutakoak jasotzen ditu, ingurumenarekin bat egiteko asmoz.

Beste aldetik, material, teknika, angelu, moldaketa eta erreferentzia estilistikoen erabileran oparotasuna du bere ezaugarri.

Informatikak diseinuan, kalkuluan, eta sormenaren laguntzan eskaintzen dituen aukera eta baliabide ia mugagabeak kontutan hartzen baditugu, jabetuko gara arkitektura, arteen artean aurrerapausorik handienetakoa eman duena izan dela eta, Errenazimenduan bezala, gailurrera iritsi dela.

Beste gauza bat da artelan liluragarri hauek gizakiaren zerbitzuan dauden ala marketing operazio bat bezala planteatzen diren, gizakiaren txundidura ahalmena betetzeko eta kontsumo orokor baterako eginak ez ote diren.

Euskal Herria azkenaldian batik bat, lehiaketa honetan sartu dela ezin ukatu. Eta iparretik hegora, sortaldetik sartaldera gure mapa arkitektura moderno/postmodernoak emandako ale ugariz sakabanatuta dagoela. Eta batzuek, historian aitzindari izandakoak gainera.


Ikus ditzagun ale batzuk.

Juan Mari Arrizabalaga




1. METRO-AHOA. BILBO (1995). ARKITEKTOA: NORMAN FOSTER

Metro-geltokien diseinu eta arkitekturari begira, oso garrantzitsuak izan dira estetika, funtzionaltasuna eta bidaiarien ongi-izatea. Eta geltoki hauek azaleraino sortzen dira, beirazko egitura oker batzuen bidez –“Foster txikiak”-, eta Parisko metro-ahoeak izan dezaketenez bezain nortasun berezia dute. Fosterrek beira, burdina eta airea elkartu zituen, eta elementu horien bidez egun-argizko zubia egin zuen egunaren barreneraino, argi-fokua ere bai, gauak kanpora itzultzen duena.



2. DONOSTIAKO E.U.T.G. (1961). ARKITEKTOA: MIGUEL ORIOL.


Banaketa organikoak, eraikuntzen neurri txiki eskalakoak, triangeluko geometriaren ia etengabeko agerpenak, esparruko geometriaren erdian elizak, dorretxo hirukoitzarrekin bi dorrek egindako ondorio monumentalak eta elementuen ezaugarri orijinalak osotasunaren irudi dinamikoa sorrarazi dute. Kulturarentzat egokia den giroa egin dute, unibertsitate-eraikinen arkitekturaren alorrean oso berria dena, bestalde.



3. FORUEN PLAZA. GASTEIZ (1981). ARKITEKTOA: L. PEÑA GANCHEGUI.


Peña Gancheguien abangoardia-lana da, Eduardo Chillidaren eskultura erraldoiaren inguruan eraikia. Plaza hori geometriaren eta mugen arteko jolasa da. Herri-kirola egiteko tokiak sortu dira: frontoiak, harmailak eta, erdian, hutsune bat, Chillidaren Foruei Omenaldia estatuarekin.

Airetiko ikuspegi batetik begiraturik, osotasunak grabatu edo eskultura bat dirudi.




4. GOTORLEKUA. IRUÑEA. (2003). ARKITEKTOA: F. J. MANGADO.

L Itxurako eraikina da. Zitudadelako hormaren erreplika gisa ixten da Ejertzitoaren Etorbidean eta plaza irekitzen da hiriaren aurrean. Gotorlekuan, ezustekoak arkitektura-hizkuntzako elementu bat izan nahi du, kanpoaren eta barnearen arteko kontraesanengatik, fokatzeek sortutako etengabeko ezustekoarengatik. Ez da lehen begiratu batez ikusmiratua izan daitekeen eraikina, baizik eta begiratu sarrien bidez, askotariko en-koadratzeen bidez.




5. YSIOS UPATEGLIAK. BIASTERI (ARABA) (1998). ARKITEKTOA: SANTIAGO CALATRAVA.

Ysios upategiak zoragarri egokitu zaizkio Biasteriko orografia gorabeheratsu bezain apartekoari, Kantabriako muinoen azpian. Hormek urmaletan zirriborroak sortu dituzte; barrika handi-handi batzuk dirudite zintzilik baleude bezala airean, mahats-itsasoa dirudien airean. Zur eta aluminiozko uhinek halakoan sentipen bitxia sorrarazten dute.




6. EUSKALDUNA JAUREGIA. BILBO. (1999). ARKITEKTOAK: F. SORIANO ETA D. PALACIOS.

Kongresu eta Musika Jauregia kokapenaren oroipenari leial zaio, diseinu aldetik. Materialik nobleenak itsas ontzioletako modu batzuekin eta eraikuntza-teknikarekin nahastu dira. Lortutako irudia Euskalduna ontziolan egindako azken itsasontziaren kaskoa irudikatzen da. Erabilera anitzeko esparrua da, 53 m. karratukoa.




7. JORGE OTEIZA MUSEOA (2003). ALZUZA (NAFARROA). ARKITEKTOA: F. JAVIER SAENZ DE OIZA.

Egileak berak aurkezten digu proiektua: Oteiza Fundaziorako proposatzen dugun Kutxa, Alzuzako etxe-tailerraren ondoan. Haren lan, harri edo hitzaren gordeleku esperimental gisa, haren sortzaile-handitasuna aurkitzen lagun diezagun. Arkitektura espazioaren esperientzia gisa, huraxe bihurtzen baita, poesia eta musika denbora bihurtzen diren bezala. Espazio jarraikorrak, argiaren mende, formaren protagonista behinena-koa. Arantzazuko tunel-tailerraren oroitzapenean oinarriturik, hantxe izan baikenuen hura miresteko aukera, maisu gisa, edo denon aita gisa.




8. ARTIUM ZENTRO-MUSEOA (2002). GASTEIZ. ARKITEKTOA: JOSÉ LUIS CATÓN SANTARÉN.

Herri baten ondarearen inbentarioa egitean, eraikuntzak zenbatzen diren arren, zenbat eta aberatsagoak izan orduan eta hobe, ezin dezakegu ahantz kultur nortasuna eraikuntzetan bezain ongi islatzen dela aurrerant, askotan azaltzen baitzaizkigu eraiki zituen kulturaren eta erabili zituzten jendeen barne-muinak eta arima aldarrika. Balio dezatela zuraurre hauek zurezko etxolaren omenaldi gisa, Erdi Aroko nekazarien lehenengo etxea izan baitzen XV. mende arte.




9. KURSAAL AUDITORIOA. (1988). ARKITEKTOA: RAFAEL MONEO.

Moneori gustatuko litzaioke Donostian Kursaalak “Hitz egin zezala pixka bat itsasoaren eta hiriaren arteko amodio horretaz, barne-espazioek izan zezaten itsas izaera hori eta hau bezalako hiri honetan beti agerian den itsasoarekin ibil zitezten maite-Jolasean”. Hortik koloreak, beira... horri esker du “izaera heze” hura. Baina haren iritzian, era berean “naturaltasunaren eta abstraktuaren arteko ibilbidearen irudia ematen du, horrek laburbiltzen du nahi nuena”.




10. GUGGENHEIM MUSEOA (1997). ARKITEKTOA: FRANK O. GEHRY.

Gure garaiko katedral benetakoa, eskulturaren arkitekturaren paradigma, XX mendeko azken museo handia. Egitura osoan ez da laurik batere. Ibaitek begiraturik, omenaldi eskainka ari den itsasontzia dirudi, goitik begiraturik lore baten antza du. Titanio-plaketatik errainu sailkaezinak sortzen dira, aldatu egiten dira goizalbatik ilunabarrera bitartean, egun grisetatik egun distiratsuetara bitartean. Baina ikusgarriena barnean dago. Kanpoko egitura zizelkaturik badago, inguru ia organikoek jarraiki, esan daiteke barnekoa argiz beteriko eskultura hutsa dela.



11. NAFARROAKO ARTXIBATEGI OROKORRA (2003). IRUÑEA. ARKITEKTOA: RAFAEL MONEO.

Arkitekto tuterarraren proiekturik berebizikoena da. Nafarroako Erregeordeen Jauregi zaharraren berritze lanekin batera, bolumetria handia erantsi dio eta, horrekin batera, ongi zaindutako trataera eman die bai patio kristalezkoari bai harriarteei, artxibategia Nafarroako oroimen historikoa dela erakutsi nahian. Aitortu behar da “bete-betea jo duela, oso ongi bateratzen baitu eraikinaren mailarik klasikoan eta historikoena berrienarekin”.



12. ARANTZAZUKO BASILIKA (1950-1954). OINATI (GIPUZKOA). ARKITEKTOA: FRANCISCO JAVIER SAENZ DE OIZA.
 Material batzuek erakusten duten zintzotasunak, harria eta hormigoia, zura eta burdina elkarrekin batera agertzeak, eta estilo aldetiko ausardiak eliza hau sentipen errepikaezinen toki bihurtu dute. Oteizak, alma materra, honela adierazi zuen izaera: "Arantzazun arkitekto eta artista-talde batek, orain badakigu une horretan zaila zatekeela beste bat osoagoa eta profesionalagoa elkartzea, erabaki zuen errealitatera eramatera erlijio-espazioaren naturaren birplanteamendu teoriko eta praktikoa bai arkitekturari bai arteari".